

¡EZ GERRARIK...!



I.

Zan Apirillaren arratsalde bat. Goiz goizetikan eudipak etzuben uzten atertu aldirik. Egun sentiya ezkerro sutunp biziyaeren otsak belarriak ernetzen zituben; mendi gañ batera zijoazen tiroak ziran. Mendi artan zeuden berregun ta berrogei ta amar euskaldun buruzai zutela Juan Illunbe, gizaseme ernea, ta guztiz dotorea, bizar beltz eta begi dizdiz-duna; chapela garrondoan bera botia bere gorpuzta ešeriaz bezela ezpataren kontra, eta beste eskuan katalejoa zeñekin begiratzen zuen kontrariyuak zeuden aldera; ta abek ere euskaldunak ziran!

Ontan aditzen zan maiz eta maizago sutunpa soñu ikaragarria, abek zeuden aldera botiaz.

Mendi onen parean zegon baserri bat, eta eche au zan Illunbe buzurzaiarena. Eche ontan bertan zeukan onek bere aur bat, guztiz maite zubena, eta egun artan inguru artako erri chiki batera eramateko asmoa zeukan, zeuden tokian etzeguelako sosegurik.

Illunbek urrutirá begiratu ta igarri zuen beren etsayak oso arroturik zebiltzala, eta au ikusirik, esan zien bere jende gudariai:—Mutíllak, bakoitza jarri deriyela bere lekuan, zergatik gaur ikusi biar degu zer edo zer gure artian.—

Au etzuben bukatu esatez oraindik, ta non aditzen duten bala baten soñu zorrotza; danak etziñ ziran lurrean, eta ala egonik, ikusten dute denbora guchi barrun aldemeneko echearen tellatuba pusketan zalapartzen dala, piška bat gerosiago soñu ikaragarria, tellatutik sartutako granodaren lertzeaz. Illunbe asnase artzeko betik gabe ezpata eskuan duela sarri da eche barrenian, beldurrez zér ikusiko ote duen, eta ¡ai! bere aurra guztia purrukatuba bere begien aurrean agertzenda! Au ikusirikan, negar egin nai eta ezindu Illunbek, zergatik gertaera au izan dan beretzat chimista zulaera bezela, non legortu dion biotz guzi-guzia.

II.

Beltzak eta zuriyak guztiz epegaturik daude gogor egiten elkarri su biziyan.

Illunbek erabaki du, arrapatzen dituzten etsai guzi guziaz, beriala-sen bizia ateratzia, baterere denborik galdu gabe.

Ara nola ari diran, elkar iltzen, anayak anayakin, guztiak euskal-dunak, antsiak eriotzarekiñ nasturik, keetan bildurikan ango gertaera guztia, geruago ta okerrago azaldurik, gaitza aunditzen, negarra geiegitzen, *nere ama maitea!* nasturik ango sutunpa soñuen artian...!

Batzuen alde etorri da jende berria, non besteak, au ikusirik abiatzen diran atzera, igarririk jende berrien kontra ez dala gauz onik, zergatik lengo indar danak aiturik dauden.

Arratsa dator gañera, illuntasunak estalirik ango ikaragarritzko gertaera.

III.

Alde bietako gogortasunak banatudira, dana gelditu da ezer gertatu ez balitz bezela. Bakarrik agerida, gabaren beltztasunean, baserri bat garretan.

Illunbe dago bakarrik, bere gelan, samindurikan, buruba bi eskuen gañean daukala, antsika eta izketan bezela abo-pian.

Ontan, beren pareko paretetako aldean, senti eragin azten dio, pusillaren ots zorrotzak, eta Illunbe arriturik azaltzen da leyora esanaz:—Mutillak zér ari zerate? esan!

—Jauna,—esan ziyon bere gudari batek. Bedorren erabakiak kunplitzen.

—Nere erabakiak?—Illunbek eranzun zuben—kontarik gabe. Eta igo azi zuben bere gelara ayetako bat.

Denbora guchi barrun igo zan mutill gazte sendo bat Illunbe zegon gelara, non esan zion nausiak:

—Zér ari zerate, oraindik sutan?

—Jauna,—eranzun zion segiran—Ez alda gogoratzen nola esan zigun, arrapatzen genuben guzia, ill egin bear zala?

—A! bai, ala esan nuen, ez nintzan batere gogoratzen. Eta orain azkeneko ill dezuten au zeñ zan?

—Azkenekua,—eranzun zion mutil gazteak,—zan gizon bat, ur-tietan sartuba; egia esaten diot, pena aundia emantzigun, ain zan umilla!

—Pena zergatik!, ondo motelak zerate pena sentitzen badezute gauz orregatikan.

—Nola zan zarra, seguru asko semiak ere izango zituben, ta...

—Ala otezan bada?—esan zuen Illunbek—¿Ikusi leike oraindikan gizon orren gorputza? eta eranzunik bayetz, abiyatu ziran arkitzen zan lekura. Atera ziran gelatikan biyak, bañan Illunbe zijoan oso triste; nonbait bere aurraren oroitza zeukan gogoan. Alderaturik lekura, zeukaten illa zatar batzuekin estalirikan pleiturik bere odolean.

Illunbe-ri, beriala gorputzian otzikara batek atsegin gaiztoa eragiñ azi dio. Illak zeukazkien zatarrak atera eta ikusi du Illunbek gorputz ura, eta begi izugarriak bertan josirik antsika, eltzen dio bere besoakin laja nai ezik, deadarka esanaz:—¡Jauna! ¡Jauna! barkatu, ez dakit zer egin.—Bere jendeak, zér gertatzentzan jakin eta jakin nayeian, gal-detzen dio:—Baña, jauna, zér gertatzen da?—

—Au da nere aita!!!

.

¡Madarikatua gerra!

FRANZISKO LOPEZ ETA ALEN.

